

UPV/EHUren IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2025)

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda

2. Mod.- Ikertzaile hasiberriek gidatutako ikerketa proiektuak

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) oniritzia eman eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, hona Ikerketaren arloko Errektoreordetzak (aurrerantzean, IAE) argitaratutako

UPV/EHUren IKERKETA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIA (2025)

Behin eskaerak aurkezteko epea amaituta, IAEko Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak aurkeztutako eskaerak berrikusi ditu.

Tramite horrekin amaitutakoan, 2. modalitateetan ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskabideen behin-behineko zerrenda argitaratu zen IAEren webgunean, zuzenketak egin behar zituzten eskaerak zehaztuz ere.

Akatsak zuzentzeko epea amaitu eta jasotako alegazioak aztertu ondoren, IAEk erabaki du bere web-atarian argitaratzea onartutako eta baztertutako eskabideen behin betiko zerrenda, ebaluazio-fasera pasatzeko.

Helegiteak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko, inola ere aldi berean erabilita:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Administrazioarekiko errekurtsu hau jarritz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsi dela ulertu beharko da administrazioaren isiltasunagatik; eta, honela gertatuz gero, datorren idatz zatian ezarritako auzibidera jotzeko aukera izango da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 legea eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legea).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2025eko irailaren 2a

**UPV/EHUren IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETA ERREKTOREORDETZA**